

**BAZTANGO HAUR ESKOLAKO MATRIKULAZIO KANPAINA.
INFORMAZIO OROKORRA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

2006an eta 2007an sortutako haurrentako eska daiteke tokia.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: 2008ko apirilaren 1etik 30era bitarte. EPEA ITXITA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK JENDAURREAN JARTZEKO EGUNA ETA TOKIA: 2008ko maiatzaren 21ean Tokia: UDALETXEKO IRAGARKI TAULA.

ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEKO EPEA: 2008ko maiatzaren 21(e)tik ekainaren 1(e)ra. Tokia: BAZTANGO GIZARTE ZERBITZUA.

Hautatze Batzordeari zuzendurik, behin-behineko zerrendetan agertutako puntuazioa berrikusteko zergatik eskatzen den azalduz.

BEHIN BETIKO ZERRENDAK JENDAURREAN JARTZEKO EGUNA ETA TOKIA: 2008ko ekainaren 9ean. Tokia: UDALETXEKO IRAGARKI TAULA

MATRIKULA EGITEA: 2008ko ekainaren 9(e)tik 16(e)ra. Tokia: BAZTANGO GIZARTE ZERBITZUA.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Matrikularen ordainagiria.
- Aitaren eta amaren NANaren, pasaportearen, atzerritarrendako egoiliar txartelaren edo nortasun agiri baliokidea.
- Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2007ko aitortpenaren fotokopia, aitarena eta amarena, edo 2007an eskuraturiko sarrerren justifikazioa. Dokumentu hori aurkezteko azken eguna, hauxe: 2008ko uztailaren 1a.
- Aitorpena egitera beharturik ez badaude, aurkeztu beharko da hori frogatzen duen Nafarroako Gobernuko agiria, lan bizitzaren agiria eta 2006ko familia sarrerak zehazteko behar diren dokumentuak (edo 2007koak, dokumentazioa 2008ko ekainaren 30a baino geroagokoa ematen bada).
- Banku entitateko kartillaren orriaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituena, ordainagiriak helbideratzeko.
- Elikadura edo osasunaren aldetik premia bereziak izanez gero, haiek biltzen dituen txosten medikoa.

OHARRAK

- Ezarritako epean ez bada matrikula egiten, beste esleipen bat eginen da itxaron-zerrendako ordenari jarraituz.
- Ez badira aurkezten eskaturiko egiaztatagiriak, zero puntu eskuratuko dira baremoan horri dagokion atalean.
- Eskaeran edo dokumentazioko datuetan gezurrik adierazi dela frogatuz gero, emandako tokia galduko da, automatikoki.
- Hautatze Batzordeak edozein unetan eskatzen ahal du baremoko gehitzeko puntuazioarekin zerikusia duten inguruabarrei buruzko dokumentazioa .

TARIFAK

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendari Nagusiak Otsailaren 20an emandako 19/2008 Ebazpenean ezarritako tarifak aplikatuko dira. Ebazpen hori laster argitaratuko da.

1 .0tik 3 urtera bitarteko haurrentzako udal titulartasuneko ikastetxeetan, Hezkuntza Departamentuarekin egindako hitzarmenen bidez finantzatueta (Hezkuntza kontseilariaren otsailaren 28ko 41/2005 Foru Agindua), familiek 2007-2008 ikasturtean ordaindu beharreko tarifak ezartzea, ondoko hauen arabera:

Urteko gehieneko tarifak		
Eskolatzte mota	Ordutegi osoko unitateak	2.277 €
	Ordutegi murriztuko unitateak	2.145 €
	Egun erdiko unitateak	1.606 €
Jantokia	Gehieneko tarifa	1.034 €

11 hilabetekotan banatuko da ordaiketa; beraz, tarifa hauek ateratzen dira hilean:

Hilabeteko gehieneko tarifak		
Eskolatzte mota	Ordutegi osoko unitateak	207 €
	Ordutegi murriztuko unitateak	195 €
	Egun erdiko unitateak	146 €
Jantokia	Gehieneko tarifa	94 €

2 . Aurreko atalean ezarritako tarifak murriztu egiten dira familia unitateko kideen per capita errentaren arabera. Ondoko taulan jaso dira ordaindu beharreko tarifak:

Familiares per cápita Errentaren Tartekak		Eskolatzte mota			Jantokia	Eskolatztea eta Jantokia		
		Eskolaldia				Eskolaldia		
Guttienez	Gehienez	Osoa	Murriztua	Erdia		Osoa	Murriztua	Erdia
Hem. gora:	15.000	207	195	146	94	301	289	240
12.401	15.000	186	175	131	94	280	269	225

10.701	12.400	154	145	108	94	248	239	202
9.301	10.700	128	120	90	94	222	214	184
7.981	9.300	96	91	67	83	179	174	150
6.651	7.980	81	75	56	72	153	147	128
5.501	6.650	59	56	42	61	120	117	103
4.501	5.500	47	44	33	51	98	95	84
3.351	4.500	35	33	25	41	76	74	66
Hem. behera	3.350	17	16	13	36	53	52	49

3._Ikastetxean bi seme-alaba dituzten familiek %50eko deskontua izanen dute bigarren haurragatik dagokien tarifa. Tarifa hori kasuan kasuko ordutegi motari dagokion tarifa txikiaren parekoa izanen da, gutxienez.

4._Ikastetxean hiru seme-alaba edo gehiago dituzten familiek aurreko atalean aipatutako murrizketa izanen dute bigarren haurragatik, eta ordutegi motaren arabera ezarritako gutxieneko tarifa hirugarren haurragatik eta hurrengoengatik.

5._Tarifak matrikula egiten denean ezarriko dira, eta 2007/2008 ikasturtean ezin izanen dira aldatu.

6._Matrikula egiteak ikasturteko eskolatzeari dagozkion hamaika hilerokoak oso-osorik ordaintzeko konpromisoa dakar berekin, erabiltzaileei egotzi ezin zaizkien kasuetan edo, justifikatutako arrazoiak tarteko, borondatezko baja gertatzen denean izan ezik.

7._Matrikula ikasturtea hasita dela egiten bada, haurra ikastetxean hasten den unetik aitzina ordainduko dira tarifak. Eskolatzeari hileren 15a baino lehen egiten bada, lehenengo hilerokoa ordaindu beharreko kuotaren %50ekoa izanen da.

8._Jantoki zerbitzua duten modalitateetan matrikulatzen diren erabiltzaileek hileroko jantoki kuotak oso-osorik ordaindu beharko dituzte zerbitzua erabiltzen ez badute ere, salbu eta, justifikatutako arrazoiak direla eta, hilean 15 egun baino gehiagotan huts egiten badute. Horrelakoetan, aldeztuak abisatu beharko da.

Laster argitaratuko den Foru Aginduan ezarritako tarifak aplikatuko dira.

BAREMOA

1).- Gurasoen lan-egoera (20 puntu, gehienez ere):

1.1-Haurren gurasoak edo tutoreak ondoko egoeretako batean daudenean, 20 puntu.

- Gurasoak edo tutoreak, lanaldi osoan biak.
- Guraso edo tutoreetako bat lanaldi osoan eta bestea dedikazio handia behar duten ikasketa arautuak egiten, egunez (behar bezala frogatu beharko da).
- Aita eta ama dedikazio handia behar duten ikasketa arautuak egiten, egunez (behar bezala egiaztatu beharko da).

1.2-Haurren gurasoak edo tutoreak ondoko egoeretako batean daudenean, 15 puntu.

- 1.1 atalean adierazitako egoera berak, baina lanaldia partziala denean.
- Aita edo ama lanean edo ikasten lanaldi osoan eta, bestea, ez osoan.

2) Familiaren osaera (8 puntu, gehienez ere)

- Hirukiak, laukiak..., edo 6 urtez beherako hiru seme-alaba edo gehiago: 6 puntu
- Bikiendako tokia eskatzea: 4 puntu
- Adin desberdineko bi anai-arrebentzat edo gehiagorentzat tokia eskatzea deialdi berean (tokiaren erreserba sartzen da), 4 puntu.
- Familia ugaria: puntu 1.
- Haurra ez beste familia-unitateko edozein kidekin minusbaliotasun fisiko, psikiko edo zentzumena onartua izatea: puntu 1.

3) Errenta mailak (12 puntu, gehienez ere): urteko per capita errentaren arabera baloratuko da

2.699,99 €tik beherako per capita errenta	12 puntu
2.700 €tik 3.199,99 €ra bitarteko per capita errenta	11 puntu
3.200 €tik 3.799,99 €ra bitarteko per capita errenta	10 puntu
3.800 €tik 4.499,99 €ra bitarteko per capita errenta	9 puntu
4.500 €tik 6.199,99 €ra bitarteko per capita errenta	8 puntu
6.200 €tik 6.999,99 €ra bitarteko per capita errenta	7 puntu
7.000 €tik 7.999,99 €ra bitarteko per capita errenta	6 puntu
8.000 €tik 9.399,99 €ra bitarteko per capita errenta	5 puntu
9.400 €tik 10.899,99 €ra bitarteko per capita errenta.....	4 puntu
10.900 €tik 12.899,99 €ra bitarteko per capita errenta	3 puntu
12.900 €tik 14.999,99 €ra bitarteko per capita errenta.....	2 puntu
15.000 €ko edo goragoko errentak.....	puntu bat

4) Aitaren nahiz amaren bizilekua edo lantokia hurbil egotea (50 puntu, gehienez ere)

- Ikastetxea eta bizilekua urte bat baino aintzinasun gehiagorekin herri berean izatea: 45 puntu.
- Ikastetxea eta bizilekua urte bat baino aintzinasun gutxiagorekin herri berean izatea: 10 puntu.
- Aitaren edo amaren lantokia egotea
 - Eskaera egin den ikastetxean: 45 puntu.
 - Eskaera egin den udalerrian: 5 puntu.

5) Beste irizpide batzuk. Hautatze Batzardeak beste premia larri batzuk (pertsonek, familiakoak edo sozialek) hartzen ahal dituzten kontuan, betiere behar bezala frogaturik badaude eta aurreko atalean bildu gabekoak badira: 10 puntu, gehienez ere.

6) Baremoko ataletan xedatutakoa gorabehera, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko ikastetxeetan zuzenean sartuko dira arriskuan edo babesik gabe dauden haurrak eta hezkuntza premia bereziak dituztenak, betiere Hezkuntza Departamentuko zerbitzu eskudunek hala proposaturik.

7) Baremoa aplikatuta, adin talde bakoitzeko azken toki eskaintzean berdinketa gertatzen bada, irizpide hauek aplikatuko dira, bata bestearen ondoren:

- Per capita errentarik txikiena.
- Adinik handiena.